

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ IGERIKETA

Eguberrietako txapelketa, bihar

Hernaniko 21garren Igeriketa saria bihar izango da, 16:00etan hasita, kiroldegian. Hernani, Buruntzaldea, Tolosaldea eta Fortunako igeri-lariak arituko dira. Bertan 100 metroko proba guztiak egingo dituzte igeri eta 4x50 libreak errelebotan. ||

■ HAUR ANTZERKIA

'Blowing' gaur, Biterin

Dantza, musika eta proiektzioak nahastean dituen *Blowing* ikuskizuna izango da gaur Biterin, 18:00etan, hiru urtetik gorako-entzat. ||

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Giza Katea gaur, Plazatik abiatuta

Gaur urteko azken ostiral berezia egingo dute Hernaniko preso-en alde herrian dabilzan taldeek. Zapiz lotutako Giza Katea egingo dute herrian zehar, 19:30etan Plazatik abiatuta. Etzira, beste zita bat jarri dute: Martuteneko kartzelara martxa egingo dute, goizeko 10:30etan Zinkoeneatik abiatuta. ||

■ EREÑOTZU

Indusketak bihar, Putzuzarren

Ikerketa arkeologiko bat egingo du Aranzadik bihar Ereñotzuko Putzuzarren. Bertan dagoen uesteko trikuharri bat industuko dute, eta gerturazten direnek, aukera izango dute bertatik bertara ikusteko. Goizeko 09:00etan hasiko dira. ||

■ SAN SILBESTREA

Apuntatzeko azken aukera, postuan

Wukroren aldeko San Silbestrea antolatu dute abenduaren 31-rako, seigarren urtez. Hiru lasterketa izango dira; 17:30etan-hasita, txikianak, eta 18:00etan izango da lasterketa nagusia. Eta azkeneko izenemateak egiteko, postua jarriko dute bihar, goiz eta arratsaldean, Tilosetan. ||

■ KONTZERTUA

«Disko berriko abestiak joko ditugu»

Death Metalak Floridatik Floridara egin du bidea, Estatu Batuetan sortu zen musika mota hau Hernaniko talde batek lantzen baitu auzo honetan. Biterin entzun ahal izango dira bihar 21:00etan, Bloody Brotherhood taldearen disko berriko abestiak. Ondoren, Meltdown eta Liher txanda izango da.

HIRU talderen kontzertua izango da bihar larunbatean, Biterin areto nagusian, gau-eko 21:00etan. Disko berria aurkeztuko dute Bloody Brotherhood eta Meltdown talde hernaniarrek, eta Liher taldea gonbidatu dute, haiekin. Kontzerturako sarrerak salgai daude, 7,5 euroan; baina hiru sarrera bikoitz zozketatuko dituzte Doberak eta Kronikak, apuntatzen diren Kronikalarien artean. Horretarako: Kronikaren bulegotik pasa (Larramendi 11), 943 33 08 99 telefonora deitu, edo idatzi kronika@kronika.eus helbide elektronikora.

Bloody Brotherhood taldeak, gainera, bere azken disko-ko abestiak aurkeztuko ditu. «Oraindik kaleratu gabe dago, urtarrila eta otsaila artean aterako dugu kalera, baina Biterin bertako kantak joko ditugu», diote Imanol eta Juanek. Taldeko bi kide dira eta hirugarrena Alberto da.

«Don't break the circle izena du diskoak eta DeepSheep productins ekoiztetxearekin batera argitaratuko dugu», diote taldekideek. Talde hernaniarra herrian ezaguna da, hainbat kontzertu eman baititu aurretik. «San Joanetan bi, Latxunben, Zikuñagan beste bitan... eta orain, Biterin estreinatuko gara, nahiz eta beste herri batzuetako kultur etxeetan aritu izan garen: Larratxon, Intxaurren, Bermeon».

Beraiek izango dira lehenengoak taularatzen. «Esan digute 45 minutu inguruko kontzertua eskaini behar dugula. Gero datoz beste biak».



Juan, Imanol eta Alberto dira Bloody Brotherhood-eko hiru kideak.

Bloody Brotherhood Metal taldea da; zehazki, Death generokoa. Estilo hau 80ko hamarkada hasieran sortu zen Floridan (AEB). «Thrash Metalari erantzunez sortu zen. Thrash Metala kaletarra goa eta urbanoagoa da, eta Death Metalaren ezaugarri nagusia da iluna dela, baita abiadura ere», diote Bloodyko taldekideek.

Eta Floridatik Floridara, Hernaniko auzoan egiten dituzte entsaioak eta grabaketak. «Meltdown taldearen ondoko lokalean. Bizilagunak gara».

Kanpoan jarraipen gehiago duen musika mota

Diote Euskal Herrian Death Metal estiloa ez dela oso ezaguna eta jarraitua, baina «behin iparraldera pasa eta bere-

hala, Europa osoan indar handia duen musika mota da. Hemen baino askoz ere gehiago. Euskal Herrian beste musika mota batek du arrakasta, baina gero talde horiek irten eta ez dira batere ezagunak. Death Metalarekin alderantziz gertatzen da; kanpoan du jarraipen handiagoa. Guk jarraitzaile gehien Bilbon, Gasteizen eta Iruñean ditugu».

2011n sortu zen taldea eta beraien lehenengo maketa 2012an editatu zuten. Horrez gain, *Ritual of blood* lehenengo diskoa 2015an argitaratu zuten. «Bira egin genuen lehenengo diskoarekin. Portugalen, Espainian, Frantzia... eman ditugu kontzertuak; Suediatik ere deitu ziguten eta European zehar bira egiteko ere bai. Hala ere, ezin izan genuen

joan. Diru asko da eta hemen laguntzarik ez dugu jasotzen. Suedian, esaterako, gutxieneko soldata ematen diete taldeei entsaio kopuru bategatik, eta kontzertuengatik, plusa. Eta bira egiten badute, are gehiago. Horregatik kanpotik horrenbeste talde etortzen dira, eta alderantziz, hemendik kanpora gutxi joaten dira».

Euskal Herrian, Dima Metal Fest-a ezaguna da eta bertan partehartzen dute. «Izugarria da. Udaletxean ongietorria egiten digute taldeei pankarta batekin. Herriko umeak eta helduak Dima Metal Fest kamixeta beltzekin ibiltzen dira. Udaletxeak ordaintzen du dena, lau eszenatoki jarri zituzten eta guk egur gehien zegoenean jo genuen». ||

Argazkia: Bloody Brotherhood





TAXIAK: 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA **GAUR** Goizaldean lainoak ugari egingo dira eta zerua lainotsu egongo da ia egun osoan. Egunaren bigarren partean euri pixka bat egingo du han-hemenka, batez ere zirimiria. **Min.8° / Max.13°**

BIHAR Goizean laino ugari izango da zeruan eta baliteke euri pixka bat egitea kantauri isurialdean. Arratsaldean atertu eta pixkanaka lainotza sarezen hasiko da. **Min.7° / Max.13°**

■ SANTA BARBARAKO HARROBIA

Santa Barbarako lakua garbitu eta pizina natural bilakatuko dute

Santa Barbarako harrobiaren prozesuaren barruan egingo ditu egokitze lanak, Udalak. Txirristrak eta tranpolinak ere jarriko dituzte bertan.

AISIALDI gune bilakatu nahi du Hernaniko Udalak, Santa Barbarako harrobia. Baina harrobia bera bakarrik ez, inguruko zonalde gehiago ere egokituko dituzte, horretarako. Horieta-ko bat da lakua, Santa Barbara auzotik Elutxetara bidean dagoena: garbitu egingo dute, eta pizina natural bat izan dadin prestatu. Jakinarazi dutenez, udarako aisialdirako toki aproposa izango da, eta txirristrak eta tranpolinak jarriko dituzte; baita belazean toki bat prestatu ere, sonbrillekin.



Lakua pizina natural bihurtzea harrobiaren prozesuaren barruan dago.

Garbiketa lanak laster hasiko dituzte, eta bi fasetan egingo dira. Aurrena, lakuan dauden hondakinak aterako dituzte; eta ondoren, ura desinfektatu eta tratatu egingo dute. Bi fase horien aurretik, dena den, bertan aspaldianik

dagoen gurgilaren jabeari, erregutu diote bertatik pasadadila eta jaso dezala.

Garbiketa lanak bukatuta, bertako faunaren azterketa egingo dute; eta ondoren hasi-

ko da, pizina naturala osatuko duten elementuen aukeraketa, bozketa bidez: herritarrek aukeratuko dute, nolako txirristrak, tranpolinak eta sonbrillak nahi dituzten. ||

■ PELOTA

Garaipen garrantzitsuak lortu dituzte hernaniar pelotariek

Ainhoa Urienek, Santo Tomasetan, Trinitateko txapelketa irabazi zuen; Eguberriko eta Altzako torneoetako finaletan ere izango dira hernaniarrak.

PASA DEN asteburua orokorrean ez zen ona izan hernaniko pelotariarentzat bost partidu bakarrik irabazi baitzituzten hamabost jokatu eta gero. Hala ere, lortu ziren garaipenak garrantzitsuak eta balio haundikoak izan ziren.

Gipuzkoako Trinkete Txapelketan Jon Jara finalaurdenetara sailkatu da, kadete mailan, Oiarpeko ordezkariari erraz irabazi eta gero. Aurretik, maila honetako beste hiru pelotari sailkatu ziren azken faserako.

Bestetik, Iñigo Labakak galdu egin zuen Mundaroko Oier Gurutzalderen aurka eta ezin izan du finalerdietara sailkatu. Eta gainera, hurrengo asteburuan maila ez galtzeko partidu erabakiorra jokatu beharko du.

Altzako Torneoan Ioritz Arrietak, Mundaroko Jokin Santxezekin batera, finalera sailkatzea lortu zuen. Finalerdian 22-18 irabazi zieten



Ainhoa Urien, eskulnetik hasita bigarrena.

Ongay eta Gorritiri. Finala Errege Egunez, urtarrilaren 6an jokatu da.

Hernaniko Eguberri Torneoan lau pelotari hernaniarrak jokatu dute finala. Igande honetan jokatu dute, finaleko joanekoa, Salaberria-Insaustik, Arizmendi-

Altunaren aurka eta itzulera-koa urtarrilaren 5ean jokatu da.

Santo Tomasetan, Trinitate Plazan, jokatu dute txapelketan CD Hernaniko Ainhoa Urienek, Vicariorekin batera, 22-21, irabazi zuen txapela Badiola-Eizagirrenen kontra. ||

■ PORTU AUZOA



Lourdes Elizondo auzotarrak jaso du, Gabonetako saskia.

Gabonetako ekintzak hasteko, karaokea gaur

Lau plan proposatu ditu Portuko Auzo Elkarteak oporraldirako. Saskia, Lourdes Elizondorentzat.

AURTEN ere, zenbait ekintza antolatu ditu Portu Auzo Elkarteak, Gabonetako oporraldirako. Lau ekintza izango dira; aurrenekoa, gaur bertan: karaoke festa egingo dute haurrentzat, 18:00etan hasita.

Urte Zahar egunean, astelehenean, mendi buelta egingo dute Santa Barbarara, urte bukaera ospatzeko, 10:30etan. Urtarrilaren 2an, berriz, zinea

izango dute: haurrentzako pelikula bat jarriko dute, arratsaldeko 17:30etan. Eta urtarrilaren 3an, azkenik, erroskilla tailerra eta merendola izango dute, arratsaldeko 16:30etan.

Joan den igandean ere izan zen giroa Portu auzoan, Santo Tomas eguna ospatu baitzuten; eta baita Gabonetako saskia zozketatu ere: Lourdes Elizondo izan da saritua. ||

■ HAURRENTZAKO PIN-A

Siria laguntzeko haur parke solidarioa, bihar

Rokodromoa, tailerrak, jolasak, txokolate eta bizkotxoak, 3 eurotan, kiroldegiko frontoian.

PASAPORTES para Siria elkarteak antolatuta, PIN solidarioa jarriko da kiroldegiko frontoian, bihar. Sarrera 3 euro izango dira, eta aurretik ere erosi ahal izango da. Bildutako dirua Lesboseko haur errefuxiatuentzako izango da.

Parkea goiz eta arratsalde

jarriko dute, 10:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara.

Zirkuitoak, puzgarriak, jolasak, rokodromoa, txokolata, Denontzat gimnasioak antolatutako ekintzak... izango dira. Sarrerak aurretik erosi daitezke, Kide kafetegian. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**MIKEL
UBILLOS OLINAGA**

Asteartean, abenduak 25, hil zen, 55 urte zituela.

- Goian Bego -

Betiko izango zaitugu gogoan

Hileta elizkizuna **GAUR, OSTIRALA, hilak 28**, arratsaldeko **BOST T'ERDIETAN**, Urnietako **MIKEL GOIINGERUA** parroki elizan.

Urnietan, 2018ko abenduaren 28an

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak **BOST TELEOPERADORA LANPOSTU** bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu **943 31 86 06**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)